

## Martutene

Amaia Etxebarria [943 210937]

Kataluniako ikasleek 11-12 urte dituzte eta lau irakaslerekin etorri ziren. Astearte arratsaldean Martuteneko ikastolan harrera egin zitzairen eta bertako ikasle eta irakasleek ongi etorri jaialdia egin zuten.

Martuteneko Arantzazuko Ama ikastolak aurtan ere ikasle trukea egin du. Gaur egun ohikoa da Martuteneko ikastolarentzat honelako trukeak egitea, izan ere hamargarren urtea baita aurtengoa. Kataluniako Jinars de Vallè herriko Ginebro eskolaren laguntzaz antolatzen ditu trukeak Arantzazuko Ama ikastolak.

Orain arte esperientzia ona izan dute bi eskolek eta aurtengo trukea ere halakoxea izatea espero dute. "Oraingoz, aurtengoa ere ongi doa. Gure ikasleak Aste Santua baino lehen egon ziren Katalunian eta oso pozik etorri ziren", adierazi digu Arantzazuko Ama ikastolako zuzendariak.


# Kataluniako ikasleak auzoaz jabetu dira

Kataluniako 52 ikasle Martutenen daude. Arantzazuko Amak eta Kataluniako Ginebro eskolak antolatu duten ikasle trukea dela eta, maiatzaren 9an Jinars de Vallè herriko 52 gaztetxo auzora iritsi ziren.

## Martutenearrak Katalunian

Arantzazuko Ama ikastolako 45 ikasle aste bete egon ziren Jinars de Vallè-n. Aste honetan, berriz, katalanei heldu zaie txanda. Ikasleak lehen hezkuntzako azken ikasturteetakoak dira, plan zaharreko seigarren mailakoak eta Martuteneko ikasleen familietan egongo dira igandera arte. "Familien bizimoduan murgiltzea, egun batzuk besterik ez bada, ikaslearentzat oso esperientzia aberasgarria dela uste dugu. Gurasoek ere oso ongi erantzuten dute eta gustura daude", azaldu digu ikastolako zuzendariak.

Joan den astearte goizean, iritsi eta berehala, ikasle katalanak igerilekura joan



Argazkian, Martutenera etorritako gazteetako batzuk.

ziren, bidaiako nekea alde batera utzi eta bainutxoa hartzera. Arratsaldean ongi etorri jaialdi erraldoia zuten zain ikastolan. Asteazkenean, Donostian barrena ibili ziren, Urgull eta irlan, besteak beste. Ostegunean Santiago mendira egin zuten

irteera eta inguruko kobazuloak bisitatu zituzten. Ostiralean Bilbora joatekoak dira. Azkenik, larunbata familien eguna izango da. Beraz, ikasleek Martuteneko familiekin igaroko dute eguna. Igandean Jinars de Vallè-ra itzuliko dira.

### Poltsiko antzerkia Martutenen

Poltsiko Antzerki Jaialdia auzora ere iritsiko da. Maiatzaren 12-an Muac antzerki taldeak "Thelma y Louise" obra antzeztuko du gaztelekuan 20.00etan.

Maiatzaren 20an, berriz, Martuteneko Trinkete tabernan Microband taldeak beste lan bat eskainiko du 22.00etan.

### Ikastaro berriak gaztelekuan

Martuteneko gaztelekuak azken hiruhilabetekoan ikastaro berriak antolatu ditu. Erritmoa eta perkutsioa, malabarrak eta monozikloa izango dira ikastaro berriak. Bestalde, aurreko hiruhilabetekoan hasitako antzerki eta txalaparta ikastaroei ere eutsi egingo zaie. Ikastaro hauen prezioak 1.400 eta 4.000 pezeta bitartekoak dira.

## PARMA hotela

Itsaso aurrean.  
Bainua, berogailua, telebista  
eta telefonoa gela guztietan

SALAMANCA PASEALEKUA 10 • TFNOA: (943) 42 80 19